



Abenduaren 10eko uholdeak direla eta, Ugarrandia Kirol Instalazioak abonatuentzako itxita egongo dira abenduaren 14ko 15:00ak arte.

Zoritxarrez, uholdeak eragindako kalteak oso garrantzitsuak dira, orain arte pairatu ditugun handienak, eta hainbat kirol-instalaziori, ur bero sanitarioaren zirkuituari eta instalazioko berokuntza-zirkuituari eragiten die. Horrek esan nahi du kirol-gune batzuk aldi baterako itxi behar direla, eta kirol-jarduera batzuk egiteko baldintzak aldi baterako eten edo/eta aldatu behar direla.

Kaltetutako instalazioak hauek dira:

- Ur bero sanitarioaren zirkuitua: beste abisu bat eman arte, instalazioak ez du ur berorik izanen.
- Igerileku estaliak: kalteak oso garrantzitsuak dira, instalazioa itxita egonen da beste abisu bat eman arte.
- Erabilera anitzetarako 1 eta 4 gelak (arte martzialak): kalteak garrantzitsuak dira, itxita egonen dira beste abisu bat eman arte.
- Ugarrandia pilotalekua: garbitu bezain pronto instalazio erabilgarri egonen da.

Une honetan, kalteak baloratzen ari gara, eta instalazioak berriro martxan jartzeko beharko den denbora kalkulatzeko ari gara.

Uharteko Udalak, bere web orriaren bidez, uholdeek kaltetutako instalazioak berriro irekitzeko aurreikuspenaren berri emango du.

Instalazio horiek ixtearen ondorioz, kirol-jarduera batzuk aldi baterako etengo dira, eta beste batzuk aldatu egingo dira garapenari dagokionez (kokapena eta ordutegia).

KIROL JARDUERETAN DUEN ERAGINA

Ahalik eta kirol-jarduera gutxien eteten saiatu gara, eta horiei jarraipena ematea lehenetsi dugu, nahiz eta horrek zenbait jardueratan doikuntza txikiak eragin, batez ere kokapenari dagokionez.

Kaltetutako instalazioak berriro martxan jartzen direnean, normaltasunera itzuliko dira jarduera guztiguztien garapena.

1- ALDI BATERAKO ETENAKO KIROL-JARDUERAK

- ✓ Igeriketa ikastaroak
- ✓ Acuagym

2- ALDAKETAREN BAT IZANEN DUTEN JARDUERAK, KOKAPENARI ETA ORDUTEGIARI DAGOKIONEZ

- a) ERABILERA ANITZETARAKO 1 GELA EMATEN DIREN KIROL JARDUERAK (uholdeagatik itxitako gela)

Eragindako instalazioen itxierak irauten duen bitartean, erabilera anitzeko 2 edo 3 gelan kokatuko dira, kirol anitzeko pistaren barruan, egun eta ordutegi berberekin.

Hauek dira jarduera horiek: Mantentze-gimnasia; 55 urtetik gorakoek Ariketa Fisikoa; Gimnasia Terapeutikoa; Yoga; GAP; Zumba; Entrenamendu Funtzionala, Batudanzaz.

b) KARATEA

Arte martzialen aretoa itxita irauten duen bitartean, talde guztiak erabilera anitzeko 3. Gelan kokatuko dira.

Jarduera tatami gabe egingen da.

ORDUTEGIA:

Tarteko mailako bi taldeek astearte eta ostegunetako entrenamendu-egunak mantenduko dituzte, eta 18:00etatik 19:00etara bitartean bateratuko dira, bi entrenatzaileak bertan direla.

Gainerako taldeak entrenamendu egunak eta orduak mantenduko dituzte.

c) KIROL-AURREKO JOLASAK EUSKARAZ

Erabilera anitzeko aretoen itxierak irauten duen bitartean, jarduera Plazaldean (San Juan plazan), 19. gelan, egun beretan eta ordutegi berean kokatuko da.

d) TRIATLOIA

Igerilekua eta Ugarrandia pilotalekua itxita irauten duten bitartean, jarduera Virgen Blanca Ikastetxeko kirol anitzeko pista estalian egingo da, egun eta ordutegi berean. Ugarrandia pilotalekua martxan jartzen den unean, bertan kokatuko da jarduera igerilekua ireki arte.

e) UGARRANDIA PILOTALEKUAN KOKATUTAKO JARDUERAK

Ugarrandia pilotalekuaren itxierak irauten duen bitartean, jarduerak Virgen Blanca Ikastetxeko kirol anitzeko pista estalian egingo dira, egun eta ordutegi berean.